

Euskalingua 28

Aurkezpena

Irakurle on hori,

*Euskalingua 28*k hiru artikulu ditu, bi EHUko EUDIA ikerketa taldeak eta bat EHUko Aholab taldeak eginda. EUDIAko lehenengoa txistukari ahoskabeen artikulazio motari buruzkoa da eta bigarrena bariazio lexikoari buruzkoa. EHUko Aholab taldearen artikulua, iruzurrezko ahots sintetikoaren detekzio-sistemei buruzkoa da.

Lehenengo artikuluan, Aitor Iglesias, Iñaki Gaminde, Leire Gandarias eta Lorea Unamunok euskarazko hiru kontsonante frikariak eta hiru afrikatuak hiztunaren generoaren arabera izan ohi dituen ahoskerak aztertze adirazle akustikoak landu ditue eta ondoren txistukari guztiak zuzen bereizten dituen Beizamako bariatatean aplikatu ditue adierazle akustiko horiek.

Bigarrean, Iñaki Gaminde, Aintzane Etxebarria, Naia Eguskiza, Asier Romero eta Lorea Unamunok, hizkuntzaren bariazioa eta honen barruan lexikoaren bariazioa aztertze aldera, Euskal Herriko 150 herritan 40 hitzeko corpusa landu dabe, multzokatze-azterketa izeneko teknika erabilita. Hizkuntzaren egitura geolinguistikoa agertzeaz gan, 12 multzo koherente finkatu ditue eta hizkeren arteko aldeak neurtu.

Hirugarrenean Jon Sanchez, Ibon Saratxaga, Inma Hernaez, Eva Navas eta Daniel Erro Aholab taldeko kideek Aholabek sortutako Ahots Sintetikoaren Detektorea (SSD) deskribatzen dute eta honen ebaluaziorako Automatic Speaker Verification Spoofing and Countermeasures Challenge (ASVspoof2015) nazioarteko norgehiagokan egindako probak eta euron emaitzak adierazten ditue. Hain zuzen ere, proba batean, norgehiagokaren antolatzaileek emandako informazioa erabilita sortutako eraso espezifikoaren eruedetan, SSDa ondo aritzen da eraso ezagunekin, ez, ordea, eraso ezezagunekin. Beste proban, hau da, mehatxu-seinaleak sortzeko erabilitako bokoderraren eruedetan, SSDak ez dau informazio guztia baliatzen.

*Euskalingua 28*ko artikuluen gaiei eta eurotarik jaso daitekeen informazioari interesgarri baizen baliagarri iritziko deusezulakoan, hurrengo zenbakira arte agurtzen zaitugu.

Aulestin, 2016ko maiatzaren 30ean

Lorea Unamuno lorea.unamuno@ehu.eus

Maribi Unamuno victoria.unamuno@ehu.eus

Koeditoreak